

Laudion, 2021eko urriaren 28an

Lamuza kiroldegiko igerilekuen aldi baterako itxiera

Lamuza Kiroldegiko igerilekuetako uraren kalitate-kontrolaren arauzko azterketak uretan bakterio bat antzeman zuen, pseudomona aeruginosa izeneko.

Astelehenean, urriaren 25ean, Udalak Lamuza Kiroldegiko igerilekuetako uraren kalitatea kontrolatzeko arauzko azterketa egin zuen. Ikerketak balio desegoki bat antzeman zuen: *pseudomona aeruginosa* izeneko uretako bakterio baten agerpena.

Instalazioaren autokontrolerako plana aplikatuz, Lamuza Kiroldegiko igerileku estalietako igeriketa-ontziak aldi baterako itxia erabaki du udalak, beharrezko neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izateko: ontzien eta iragazkien garbiketa, hiperklorazioa eta uraren birzirkulazioaren handitzea. Neurri horiek aplikatu ondoren, uraren beste lagin bat hartuko da aztertzeko. Emaizak 48 ordu igarota jasotzen dira.

“Mikroorganismoaren balioak normalizatu arte, araudi tekniko-sanitarioak parametro irregularrak detektatu diren igerilekuak kautelaz ixtera behartzen du. *Pseudomona aeruginosa* planeta osoko hezeguneetan maiz agertzen den bakterioa da, harrasketan, konkretetan eta igerilekuetan, hain zuzen ere”, azaldu du Joseba Amondo Obra eta Zerbitzuetako zinegotziak. Lamuza Kiroldegiko igerilekuetan

bakterio hori agertzea ez da kasu isolatua izan. Izan ere, Gasteizko Aldabe igerilekuak arrazoi berarengatik itxi behar izan zituzten iazko uztailean.

Neurri horiek eragina dutenean, udal-administrazioak igerilekuak berriz irekitzeari buruzko informazioa emango du.